

 <p>GOBIERNO DE ESPAÑA MINISTERIO DE UNIVERSIDADES</p>	 <p>Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU</p>
<p>eman ta zabal zazu</p>  <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	 <p>Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia</p> 

**EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN (UPV/EHUren) 2022ko MAIATZAK 03 DATAKO EBAZPENA 2021-2023 TARTERAKO UNIBERTSITATE SISTEMA ESPAINIARRA BIRKUALIFIKATZEKO LAGUNTZEN DEIALDIA, EUROPAR BATASUNAK-NEXT GENERATION EU-K FINANTZATUTA**

## ATARIKOA

Deialdi honen oinarria apirilaren 20ko 289/2021 Errege Dekretuak –Espainiako unibertsitate sistema birkualifikatzeko unibertsitate publikoei zuzeneko dirulaguntzak ematea arautzen duenak– eta maiatzaren 26ko UNI/551/2021 Ministerio Agindua, dirulaguntza horiek ematen dituen agindutakoa betetzean datza.

289/2021 Errege Dekretuaren 1. eta 6. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, UPV/EHUk deialdi bat finantzatzeko erabili behar du emandako laguntza, hiru modalitate hauetan: Margarita Salas laguntzak, doktore gazteak prestatzeko; unibertsitateko irakasle funtzionarioak edo kontratatuak birkualifikatzeko laguntzak; eta María Zambrano laguntzak, nazioarteko talentua erakartzeko.

Horren ondorioz, Unibertsitate Ministerioaren aipatutako apirilaren 20ko 289/2021 Errege Dekretuan eta maiatzaren 26ko UNI/551/2021 Ministerio Aginduan jasotzen diren jarraibideekin bat etorritik, eta Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak (aurrerantzean, IGBB) egindako txostena Gobernu Kontseiluari txostena egin zezan aurkeztu ondoren, Ikerketaren arloko Errektoreordetza honek (aurrerantzean, IAE) deialdi hau onartzea ebatzi du, jarraian zehazten diren baldintzen arabera.

## DEIALDIAREN HELBURUA

Deialdi honen helburua mugikortasunerako laguntzak eskaintzea da, UPV/EHUko doktoreak birkualifikatzeko, Unibertsitate dirulaguntzak zuzenean ematea arautzen duen apirilaren 20ko 289/2021 Errege Dekretuan eta dirulaguntza horiek ematen dituen maiatzaren 26ko UNI/551/2021 Ministerio Aginduan ezarritakoarekin bat etorritik.

### 1. OINARRIA. DEIALDIAREN MODALITATEAK ETA LAGUNTZEN BANAKETA

Deialdi honek helburu hauek ditu, interes publiko, sozial eta ekonomikoa dutenak, eta UPV/EHUko hezkuntza kalitatearen mesederako direnak:

- Doktore gazteen prestakuntza.
- Unibertsitateko irakasle eta ikertzaileen mugikortasuna sustatuz, irakasle funtzionarioak edo kontratatuak birkualifikatzea.
- Nazioarteko talentua erakartzea.

Horretarako, deialdi hau modalitate hauen arabera antolatzen da:

- Gutxienez 46 Margarita Salas laguntza, doktore gazteak prestatzeko.
- Gutxienez 9 Unibertsitateko irakasle funtzionarioak edo kontratatuak birkualifikatzeko laguntzak.

- Gutxienez 13 María Zambrano laguntza, nazioarteko talentua erakartzeko.

---

## **MARGARITA SALAS LAGUNTZEN MODALITATEA, DOKTORE GAZTEAK PRESTATZEKO**

### **2. OINARRIA. XEDEA**

2.1. Modalitate honetako laguntzen xedea UPV/EHUko doktore gazteei prestakuntza ematea da, zehazki, Espainiako unibertsitate publiko batean zein atzerriko unibertsitate eta ikerguneetan edota Espainiako ikerketarako erakunde publikoetan gauzatu beharreko prestakuntzaren bidez.

Laguntzak atzerrian dauden unibertsitate edo ikerguneetan prestakuntza egonaldiak egiteko edo Espainiako ikergune publikoetan prestakuntza egonaldiak egiteko eskatzen badira, hautagaiak aukeratutako Espainiako unibertsitate publiko batean egin beharko da laguntzaren azken urtea. Onuradunak doktore titulua atera zuen unibertsitatean egin ahal izango da urte hori.

2.2 Era berean, doktoretza-titulua unibertsitate pribatu batean lortu duten edo, nazionalitate espainiarra izanik, atzerriko unibertsitateetan edo ikerketazentroetan lortu duten doktoreen laguntzak ere UPV/EHUK izapidetuko ditu, baldin eta doktore-ondoko egonaldia edo azken urtea UPV/EHUn egin nahi badute.

### **3. OINARRIA. KONTRATUEN EZAUGARRIAK**

3.1. Modalitate honen bidez egin beharreko kontratu kopuru osoa aurrekontu eskuragarritasunaren arabera izango da; kontratu horiek ikerketa arlo guztietara zabalik egongo dira. Halaber, erreserbako zerrenda bat sortzeko aukera aurreikusten da eta, halakorik ez bada, soberakinak deialdiaren beste modalitateetara bideratzeko.

3.2. Modalitate honi aplikaturiko finantzaketa osoaren % 2ari dagokion kontratu kopuru bat gordeko da honako pertsona hauentzat: gutxienez % 33ko desgaitasuna dutela egiaztatzen dutenak, betiere, zuzendari zientifikoaren txostenaren bidez egiaztatzen badute desgaitasun hori egonaldian zehar egin beharreko lanarekin bateragarria dela. Ezgaitasuna duten eta eman gabe gelditzen diren pertsonentzako laguntzak laguntza orokorreari gehituko zaizkie.

3.3. Bost ikerketa-eremuetarako (Zientziak, Ingeniaritza eta Arkitektura, Osasun Zientziak, Gizarte eta Lege Zientziak, Arteak eta Giza Zientziak) 8 laguntza gordeko dira. Erreserbatutako 8 laguntzetatik bost eskaera kopurua edozein dela ere emanen dira, baldin eta ebaluazio irizpideen arabera eskatzen den gutxieneko puntuazioa gainditzen badute. Erreserbatutako seigarren, zazpigarren eta zortzigarren laguntzak esleitzeko, ebaluazio-irizpideen arabera eskatzen den gutxieneko puntuazioa gainditzen duten ikerketa-arloko eskaeren kopuruak gutxieneko puntuazio hori gainditzen duten eskaera guztien %10 izan behar du gutxienez. Gainerako laguntzak ebaluazioan lortutako puntuazioaren arabera emanen dira, ikerketa eremua edozein dela ere.

Ikerketaren arloko errektoreordetza

---

3.4. Hautagaiek egonaldi jarraitua egin beharko dute eurek hautatutako Espainiako unibertsitate publiko batean, Espainiako ikerketarako erakunde publiko batean, atzerriko unibertsitate batean edo atzerriko ikerketa-zentro batean.

Egonaldia egiteko aukeratutako zentroa edo unibertsitatea ez da doktoratu aurreko prestakuntza egin eta doktore-titulua lortu zutenaren berdina izango.

Egonaldiaren azken urtea izangaiak aukeratutako Espainiako unibertsitate publiko batean egin beharko da, prestakuntzako egonaldia Espainiako edo atzerriko beste unibertsitate edo zentro publiko batean egin bada ere. Urte hori onuradunak doktore titulua lortu zuen unibertsitatean egiten ahalko da.

3.5. Kontratua formalizatzen den unean indarrean dagoen legeriak arautuko du deialdi honen bidez lortzen den lan kontratua eta arduraldi osokoa izango da. Nolanahi ere, eginkizunei eta ordainsariei dagokienez, UPV/EHUko Irakasle eta Ikertzaileen Negoziazio Mahaiaren Akordioa aplikatuko da, doktoretza aurreko kontratuaren eta zientzia, teknologia eta berrikuntzako Espainiako sisteman sartzeko kontratuaren modalitatean aldi baterako ikertzaileen araudia egokitzeari buruzkoa, UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak 2021eko abenduaren 16an onartua.

3.6. Eskabidean adierazten den ikergune publikoan edo unibertsitatean sartuko da onuraduna, kontratua formalizatzean.

Eskabidean zehaztutakoaren arabera laguntzaren azken urtean egonaldiako aukeratutako unibertsitatea UPV/EHU bada, eskabidean adierazitako zuzendari zientifikoaren UPV/EHUko sail edo institutuan sartu beharko da onuraduna.

3.7. Sinatu beharreko kontratuaren iraupena 24 hilabetetakoa izango da etenik gabe, formalizatzen den datatik hasita. Kontratuaren iraupena ezin izango da 2024ko abenduaren 31 baino haratago joan.

3.8. Onuradunak gehienez 60 orduko irakaskuntza lankidetzak eskaini ahal izango du urtean, berak eskatuta eta harrera erakundeak onetsita. Aldez aurretik, dagokion baimena eskatu beharko zaio Ikerketaren arloko Errektoreordetzako Ikerketaren Gestio Zuzendaritzari (aurrerantzean IGZ), eta irakaskuntza lankidetzak harrera zentroan bertan egiten bada bakarrik emango da baimen hori.

3.9. Laguntzaren hileko zenbateko gordina apirilaren 20ko 289/2021 Errege Dekretuan dago finkatuta, eta 2.800 eurokoa izango da egonaldia Estatuko ikerketa-zentroetan edo unibertsitateetan egiten bada, eta 3.500 eurokoa egonaldia atzerriko ikerketa-zentroetan edo unibertsitateetan egiten bada. Bi kasuetan, zenbateko horiek nomina gordinaren eta dagokion enpresa kuotaren batura dira; beraz, kontratatutako pertsonak zenbateko horiek baino gutxiago jasoko du, enpresa kuota kenduko baitzaie.

3.10. Laguntzaren azken urtean, zeina Espainiako unibertsitate publiko batean egin behar baita, zentro edo unibertsitate nazionaletako egonaldiari dagokiona izango da laguntzaren zenbatekoa.

3.11. Esleipendunaren eta UPV/EHUren arteko kontratu-harremana, deialdi honen ikerketaren arloko errektoreordetzak

babesean formalizatua, kontratu horren indarraldia amaitzen denean amaituko da.

#### 4. OINARRIA. ESKATZAILEEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Deialdi honetan parte hartzeko, eskatzaileek ondoren zerrendatzen diren baldintza guztiak bete beharko dituzte **eskabidea aurkezteko unean**:

4.1. Doktorego-tesia EHUn defendatu izana. Hala ere, doktore-titulua Espainiako unibertsitate pribatuetan lortu duten pertsonak, edo nazionalitate espainiarreko unibertsitateetan edo atzerriko ikerketa-zentroetan lortu dutenak, deialdi honetara aurkeztu ahal izango dira, baldin eta UPV/EHUn doktoratu ondoko egonaldia edo azken urtea egiten behar badute.

4.2. Gehienez bi urte igaro izatea doktore titulua lortu denetik eskabideak aurkezteko epea ixten den arte.

4.3. 4.2. atalean esandakoa ere, bi urteko epea luzatu egingo da hauen arteko egoeraren bat gertatzen denean:

a. Semea edo alaba jaiotzea, edo semea edo alaba zaintzea –adopzioen kasuetan, edo adopzioaren edo harrera iraunkorraren aurreko zaintzen kasuetan–, baldin eta jaiotze data, edo, kasuan kasu, erabaki judizial edo administratiboaren data doktore gradua lortzen denetik eskabideak aurkezteko epea ixten den arteko denbora tartean gertatu bada. Seme edo alaba bakoitzeko urtebeteko luzapena aplikatuko da.

b. Haurdunaldiari lotutako kausak direla eta, aldi baterako ezintasuna gertatzea; edo kontratua etetea, bai haurdunaldian sortutako arriskua dela eta, bai bederatzi hilabete baino gutxiagoko haur baten edoskitzaroko arrisku egoerak direla eta. Aplikatutako luzapena justifikatutako denbora tartearen adinakoa izango da.

c. Aldi baterako ezintasuna aurreko puntukoak ez diren arrazoiengatik, gutxienez hiru hilabetez jarraian. Aplikatutako luzapena justifikatutako denbora tartearen adinakoa izango da.

d. Eszedentzian egotea seme edo alaba zaintzeko, senitartekoa zaintzeko, genero indarkeriagatik eta indarkeria terroristagatik, gutxienez hiru hilabetez. Aplikatutako luzapena justifikatutako denbora tartearen adinakoa izango da.

e. Lanaldi murriztua izatea legezko zaintzagatik, senitartekoa zuzenean zaintzeagatik edo gaixotasun larria duen adingabea zaintzeagatik, gutxienez hiru hilabetez, lanaldi osoetan kalkulatuta. Aplikatutako luzapena justifikatutako denbora tartearen adinakoa izango da.

f. Mendekotasuna duten pertsonen emandako arreta ematea, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean xedatutakoari jarraikiz, gutxienez hiru hilabetez.

Ikerketaren arloko errektoreordetza

Aplikaturako luzapena justifikaturako denbora tartearen adinakoa izango da. Denbora tarte horiek behar bezala adierazi eta egiaztatuko dira eskabidea aurkezteko unean. Apartatu honetan aurreikusitako egoera bat baino gehiago aplikatzea bateragarria izango da, eta denbora tarte bat baino gehiago metatu ahal izango dira, betiere justifikaturako denbora tarteak aldi berean gertatzen ez badira. Aplikatu beharreko luzapena kalkulatzeko, justifikaturako denbora tarte hilabete osoetara biribilduko da gorantz; denbora tarte bat baino gehiago aplikatu behar izanez gero, berriz, justifikaturako denbora tarteen batura aplikaturako da. Ondorio horietarako, semea edo alaba jaiotzeagatik edo zaintzeagatik justifikaturako denbora tarte urtebetekoa izango da seme edo alaba bakoitzeko, jaiotegunetik edo erabaki judizial edo administratiboaren egunetik zenbatzen hasita.

g. Ehuneko hogeita hamahiruko edo gehiagoko desgaitasuna aitortua dutenei beste bi urteko luzapena aplikaturako zaie.

4.4. Deialdi honetan erabilitako kontratu modalitatea Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko Legearen (ZTBL) 22. artikulua bidez egiten bada, eta onuraduna aurrez modalitate horretan kontratatuta egon bada, aurreko kontratuen iraupenaren eta deialdi honen bidez lortutako kontratuaren baturak ezin izango du gainditu ZTBLn ezarritako 5 urteko gehieneko epea.

Ezgaitasun egiaztatua duten pertsonen kasuan, 5 urteko muga 7 urtekoa izanen da.

4.5. UPV/EHUzuzendaritza zientifikoa duen pertsona baten bermea izatea.

## **5. OINARRIA. KONTRATATURAKO LANGILEEN BETEBEHARRAK**

5.1. Deialdi honen 8.4 oinarrian zehaztutako epean sartzea adierazten den Espainiako zein atzerriko unibertsitatean, atzerriko ikergunean edo Espainiako ikerketarako erakunde publikoan eta bertako instalazioetan egon egonaldi osoan

5.2. Eskabidean azken urterako hautatutako unibertsitate publiko espainiarrean sartzea, eta hautatutako hori UPV/EHU bada, eskabidean adierazitako zuzendari zientifikoaren sail, institutu edo ikastegian sartzea.

5.3. Sartzen den unibertsitateko edo ikerguneko arauen arabera jokatzeko, arduraldiari, bete beharreko funtzioari, ordutegiari eta unibertsitatearen edo helmugako zentroaren barne arauari dagokienez.

5.4. Ikertzaile lana helmugako unibertsitatean edo ikergunean egitea.

5.5. Laguntza jasotzearekin zerikusia duten txosten, formulario eta gainerako agiriak bete beharko dituzte Ikerketaren Gestioko Zuzendaritzak (aurrerantzean IGZ), Unibertsitate Ministerioak edo deialdia gestionatzen duten zerbitzuek hala eskatzen dietenean.

5.6. Beren jardueri buruzko informazio guztia eman beharko diete finantzak kontrolatu eta egiaztatzeke eskumena duten organoei, horiek hala eskatzen dietenean.

5.7. Irakasle eta ikertzaileen arloko errektoreordetzari (aurrerantzean IPE) gutxienez 10 egun baliadun lehenago jakinaraztea deialdi honen babesean sinatutako kontratuari uko egiten diotela, edo deialdiaren helburuak lortzea galarazten dieten jazoerak edo kalteak izan dituztela. Deialdi honek iraun bitartean jasotako beste laguntza edo ordainsarien berri ematea, espresuki.

5.8. Deialdi honen babesean formalizatutako kontratuak iraun bitartean, Ikerketa lanen ondorioz sortutako lanak, publikazioak edota bestelako emaitzak sinatzean, UPV/EHUrekiko lan harremana zehaztu beharko da.

Halaber, kontraturen indarraldiak dirauen bitartean egindako ikerketa jardueren ondoriozko argitalpenetan eta bestelako emaitzetan, eskerrak emateko atalean kontratazio deialdi hau aipatu beharko da, baita Unibertsitate Ministerioak Europar Batasuneko Next Generation funtsekin finantzatua dela ere.

5.9. UPV/EHUren titulartasuna aitortzea, egindako ikerketa lanaren ondorioz sor litezkeen argitalpen, patente, modelo baliagarri eta jabetza intelektualeko objektuen nahiz lanen inguruan, aldi berean jabetza industrial edo intelektualaren asmatzaile gisa eskatzaileari egin beharreko aitopenari eusten zaiolarik.

5.10. Deialdi honen babesean kontratua formalizatzeko deialdiko arauak errespetatzea dakar, bai eta Ikerketaren arloko Errektoreordetzak, dauzkan eskumenei jarraikita, lana ikuskatzeko eta ebaluatzeko ezarritako arauak errespetatzea ere. Ikertzailearen Gutun Europarrean aurreikusitako betebeharrak orokorrak eta espezifikokoak betetzea ere beharrezkoa izango da.

## **6. OINARRIA. ESKABIDEA BERMATZEN DUEN ZUZENDARI ZIENTIFIKOAREN BALDINTZAK**

6.1. Eskaera aurkezten denean, EHUko talde hauetako batekoa izatea:

- a. UPV/EHUri modu iraunkorrean lotutako lan-kontratadunak edo funtzionarioak, Ramón y Cajal programako UPV/EHUn kontratatutako langileak, UPV/EHUri atxikitako Ikerbasque programako langileak, UPV/EHUri atxikitako EHU-CSIC zentro mistoetako doktoreak.
- b. Lanaldi partzian kontratatutako doktoreak, EHUri modu iraunkorrean lotuak.
- c. Salbuespen gisa, zuzendari zientifikoa UPV/EHUrekin bestelako loturaren bat duen beste kolektibo bateko kide izateko aukera aztertuko da, baldin eta doktoratu ondoko ibilbidea 3 urtetik gorakoa bada eta UPV/EHUrekin duen lotura laguntzaren iraupen osorako bada.



6.2. UPV/EHUrekin duen lotura eskabidea aurkezten den unetik beretik eta laguntzak irauten duen bitartean izango da.

6.3. Gaur egun jardunean ari den ikerketa talde bateko kide izatea edo 2021eko taldeen deialdian Eusko Jaurlaritzari edo UPV/EHUri egindako eskaera batean parte hartu izana, edo, halakorik ezean, ikerketa proiektu aktibo bat izatea. Proiektu horrek, kasu batean edo bestean, laguntza eskatzen duen pertsona lantalde batean sartzea erraztuko du, eta laguntzak irauten duen bitartean sor daitezkeen beste ikerketa gastu batzuen estaldura ziurtatuko du.

6.4. Pertsona bera ager daiteke zuzendaritza zientifikoan, deialdiko modalitate horretako eskaera batean baino gehiagotan. Hala ere, lehenik eta behin, laguntza bat emanen da, gehienez ere, zuzendaritza zientifiko berean. Soilik hauta daitezkeen laguntzen kopurua ez bada eskainitako laguntzen kopurura iristen, eskainiko da laguntza bat baino gehiago zuzendaritza zientifiko berean.

## 7. OINARRIA. ESKABIDEAK AURKEZTEA

7.1. Eskabideen kudeaketa. Hautagaiek kasu hauetan egingo dituzte eskabideak UPV/EHUn:

- a. Doktore titulua UPV/EHUn lortu badute.
- b. Tesia unibertsitate pribatu batean defendatu badute, edo nazionalitate espainiarra izanik, tesia atzerrian defendatu badute, eta egonaldia osorik egin nahi badute, edo gutxienez azken urtean, UPV/EHUn.

7.2. Aurkezteko tokia eta modua. Eskabideak UPV/EHUko Ikerketaren arloko errektoreordeari bidali beharko zaizkio. Eskabideak UPV/EHUko egoitza elektronikoko Erregistro Elektronikoen bidez aurkeztuko dira, bai eta UPV/EHUko erregistro bulegoetan edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 legearen 16.4 artikuluan jasotako prozeduretakoren baten bitartez ere.

Erregistro Elektronikoa erabiltzen bada (<https://egoitza.ehu.eus/eu/registroelectronico>), «Helburua» atalean, lehenik, «Ikerketaren arloko Errektoreordetza» adierazi beharko da, eta, bigarrenik, «Ikerketaren kudeaketa. Deialdiak (U02000256)». «Eskatzen du» atalean, honako hau zehaztu beharko da: **«Margarita Salas laguntzak, doktore gazteak prestatzeko»**.

7.3. Behar den dokumentazioa:

- a. *Eskabide inprimakia*, betiere [IAEren webgunean](#) eskuragarri dagoen eredu normalizatuari jarraikiz. Harrerako ikertaldeko ikertzaile nagusiak eskuz edo ziurtagiri elektronikoen bidez sinatuta aurkeztu beharko da.

- Dokumentu hori eskabidearen osagai eta gutxieneko edukizat joko da eta, hortaz, behin aurkeztu eta gero eskatzaileak ezin izango du aldatu. Epearen barruan eta forma egokiz aurkezten ez bada, baztertu egingo da.
- b. *Eskatzailearen curriculum vitae laburtua*, PDF formatuan. Dokumentu hau curriculum vitae laburtuaren (CVA) formatuan aurkeztuko da. Eskatzaileek online editatu ahal izango dute, honako lotura honen bidez: <https://cvn.fecyt.es/editor/>
  - c. *Doktore titulua*. Doktorego tituluaren eta defentsaren dataren erreferentziaren kopia aurkeztu beharko da paperean edo PDF formatuan, tesiaren defentsa unibertsitate pribatu batean edo atzerrian defendatu bada.
  - d. *NAN, AIZ edo pasaportearen fotokopia, PDF formatuan*.
  - e. *Adierazten diren hizkuntzen ezagutza mailen ziurtagirien kopiak paperean edo PDF formatuan*. Ez da onartuko ziurtagiririk, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta gero lortu badira. Euskararen jakite-maila egiaztatzen duten ziurtagiriei dagokienez, kontuan hartuko dira 2010eko azaroaren 9ko 297 Dekretuan, euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien baliokidetzak. Apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuak, euskaraz egindako ikasketa ofizialak onartzekoak eta euskarazko hizkuntza-titulu eta -ziurtagirien bidezko egiaztapenetik salbuestekoak, ezartzen dituen baliozkotzeen kasuan, eskatzaileek ere dagokion ziurtagiria aurkeztu beharko dute. Estatuan ofizialak ez diren hizkuntzen ezagutza ziurtagiriei dagokienez, kontuan hartuko da Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko mailekin parekatzea.
  - f. Hautagaiaren irakasle eta ikertzaile karreraren aurrerapenean egonaldiak sortuko duen eragina *justifikatzeko memoria*.
  - g. *Egonaldia hartuko duen taldearen historia zientifiko-teknikoa*.
  - h. *Unibertsitate edo ikergune hartzailearen dokumentua, egonaldia onartzen duela adierazten duena*.
  - i. *Kontratuaren azken urteko egonaldia egingo den Espainiako unibertsitatearen dokumentua, egonaldia onartzen duela adierazten duena*, 3.4 oinarriaren azken paragrafoan aurreikusitako kasuetan.
  - j. Desgaitasunen bat duten pertsonentzat gordetako kupoaren bidez sartuko diren pertsonak *ziurtagiria* aurkeztu beharko dute, *gutxienez % 33ko desgaitasuna egiaztatzen duena*, bai eta zuzendari zientifikoaren txostena ere, egonaldian egin beharreko lanerako -2.1 oinarrian zehaztua- bateragarria dela egiaztatzen duena.
  - k. *4.3. oinarrian aurreikusitako salbuespenetako bat erabiltzeko eskubidea egiaztatzen duten agiriak*, non doktoretza-titulua lortzen denetik 4.2. oinarrian

---

ezarritako eskabideak aurkezteko epea bukatu arte gehienez bi urteko epea gainditzea aurrikusten den.

7.4. Eskabideak aurkezteko epea. Eskabideak aurkezteko epea 2022-05-31n amaituako da.

Dokumentazioa EAEko edozein hizkuntza ofizialetan aurkez daiteke, euskaraz eta gaztelaniaz, baita ingelesez ere. Ebaluatzaileak euskaldunak ez badira, IA Ea arduratuko da euskaraz aurkeztu diren eskaerak gaztelaniara edo ingelesera itzultzeaz. Itzulpena jasota, posta elektronikoz bidaliko zaio eskatzaileari, eskaeran adierazitako posta elektronikoa bidez. Eskatzaileak bost egun balioduneko epea izanen du hura berrikusi eta adostasuna emateko. Epe hori kontatzeko, kontuan hartuko da posta elektronikoa kudeatzaileak posta elektronikoa eman duela egiaztatzen duen agiria. Epe hori erantzunik jaso gabe bukatzen bada, ulertuko da eskatzailea itzulpenarekin ados dagoela.

**7. oinarrian eskatzen den dokumentazioa baino ez da ebaluatuko; beraz, ez da beharrezkoa izanen eskatzaileek merezimenduak egiaztatzeko agiri gehiago aurkeztea.**

## **8. OINARRIA. KONTRATUA ESLEITZEA**

8.1. Behin betiko erabakia jakinarazi eta hamar egun baliodunetara, kontratua lortzeko alegatu dituzten baldintza eta merezimenduen egiazkotasuna agertzeaz gain, kontrataziorako hautatutakoek honako dokumentazio hau aurkeztu beharko diote IA Eri:

- a. Deialdi honen esleipendun gisa dituzten betekizunen onarpen dokumentua.
- b. Identifikazio fitxa datu pertsonalak, bankukoak, eta Gizarte Segurantzako afiliazio zenbakia dituenak.
- c. Doktore tituluaren fotokopia konpultsatua edo tituluari dagokin homologazio agiria, atzerrian atera bada.
- d. Sartze dokumentua, helmugako unibertsitateak edo ikerguneak baliozkotuta; bertan, aukeratutako pertsona sartu den data zehatza agertuko da.
- e. Zentroan hastea atzeratzeko eskaera, horretarako arrazoi objektiboak behar bezala justifikatuta. Behin betiko ebazpena jakinarazi eta gehienez ere 90 egun natural atzeratu daiteke.
- f. Deialdi honetan erabilitako kontratu modalitatea ZTBLren 22. artikulua bidez egiten bada, ZTBLren 22. artikuluan aurreikusitako kontratua formalizatzeko bateraezintasunik ez duela adierazten duen zinpeko aitortzea, deialdiaren modalitate horrekin formalizatuko den kontratuaren gehieneko iraupenari dagokionez.

8.2. Europar Batasuneko herritarrak ez direnen kasuan, Espainian lan egiteko administrazio baimena aurkeztu beharko dute, ekintzaileei eta beren nazioartekotzeari laguntzeko irailaren 27ko 14/2013 Legeari jarraikiz.

8.3. Laguntzak emateko behin betiko ebazpenean ezarriko da kontratuak formalizatzeko data.

8.4. Kontratua formalizatu eta berehala hasi beharko du lanean eskaeran adierazitako helmugako zentroan.

Salbuespen gisa, 8.1 oinarrian adierazitako agiriaren bidez atzerapena eskatu bada, atzerapen hori ez da 90 egun natural baino gehiago izango.

8.5. Esleipenduna ez bada bertaratzen adierazitako egunean kontratua sinatzeko ekitaldira edo ez bada lanean hasten helmugako unibertsitatean edo ikergunean onarpen dokumentuan adierazitako egunean, ulertuko da kontratuari uko egiten diola.

8.6. Honako hauek dira kontratuari uko egiteko arrazoiak:

a. Beharrezko dokumentazioa ezarritako epean ez aurkeztea IGZn, biak 8.1 oinarriaren arabera.

b. Pertsona dagokion egunean lanean hasten ez bada helmugako zentroan, 8.4 oinarriaren arabera.

## **UNIBERTSITATEKO IRAKASLE FUNTZIONARIOAK EDO KONTRATATUAK BIRKUALIFIKATZEKO LAGUNTZEN MODALITATEA**

### **9. OINARRIA. XEDEA**

9.1. Laguntza hauen xedea unibertsitateko irakasle funtzionario edo kontratatuak birkualifikatzea da, prestakuntza egonaldiak eginez estatutu edo lan harremana duten unibertsitate edo ikergune publikoez bestekoetan.

### **10. OINARRIA. LAGUNTZEN EZAUGARRIAK**

10.1. Laguntza hauetara UPV/EHUko kategoria hauetako pertsonak aurkez daitezke: Unibertsitateko irakasle titularrak, Irakasle Kontratatu Doktoreak eta Irakasle Laguntzaile Doktoreak, edo autonomia mailako irakasle laboral baliokideak.

10.2. Irakasle iraunkorren kasuan, laguntza horiek urte bat edo bi iraunen dute.

10.3. Irakasle laguntzaileen kasuan, laguntzek urte bat edo bi iraunen dute. Laguntzak ez du kontratuaren iraupena gaindituko.

10.4. Irakasle laguntzaileek dagokien unibertsitatean gordeko dute lanpostua, antzinatasunik galdu gabe, laguntza hauekin finantzaturako prestakuntzako egonaldiak dirauen bitartean.

10.5. Unibertsitateko irakasle titularrek eta irakasle kontratatu doktoreek ez dute hamar urte baino gehiago eman beharko lanean, eskaeraren unean.

10.6. Laguntzak ikerketa-arlo guztietarako dira. Modalitate honetan eman beharreko laguntzen azken kopurua aurrekontuetan dagoen diruaren araberakoa izanen da. Halaber, erreserbako zerrenda bat sortzeko aukera aurreikusten da eta, halakorik ez bada, soberakinak deialdiaren beste modalitateetara bideratzeko.

10.7. Gutxienez % 33ko desgaitasuna dutela egiaztatzen duten pertsonentzat, modalitate honi aplikatutako finantzaketaren zenbateko osoaren % 2ari dagokion laguntza kopurua gordeko da.

10.8. Laguntza bat gordeko da 5 ikerketa-eremuetarako (Zientziak, Ingeniaritza eta Arkitektura, Osasun Zientziak, Gizarte eta Zuzenbide Zientziak, Arteak eta Giza Zientziak), baldin eta ebaluazio-irizpideen arabera eskatzen den gutxieneko puntuazioa gainditzen duten ikerketa-eremu bakoitzeko eskaeren kopurua gutxieneko puntuazio hori gainditzen duten eskaeren guttizkoaren %10 bada gutxienez. Gainerako laguntzak ebaluazioan lortutako puntuazioaren arabera emanen dira, ikerketa eremua edozein dela ere.

10.9. Hautagaiek prestakuntza egonaldia egin beharko dute UPV/EHU ez den beste unibertsitate edo ikerketa-zentro publiko batean.

10.10. Egonaldia modu jarraituan edo hainbat epealdi jarraituetan egin ahalko da; bigarren kasuan, betiere, egonaldi epealdien baturak eman den epealdi osoa betetzen badu. Hala ere, egonaldia 2024ko abenduaren 31rako amaitu beharko da.

10.11. COVID-19 delakoak eragindako osasun-larrialdiak eragindako etenaldiak "ezinbesteko arrazoiengatik etenaldizat" joko dira, eta, beraz, emandako laguntzek osorik estaliko dute egonaldiaz gozatzeko esleitutako aldia. Nolanahi ere, egonaldiak ezin izanen du 2024ko abenduaren 31 baino gehiago iraun.

10.12. Modalitate honetako laguntzak onuradunaren soldata gordinaren baliokideak izanen dira, hau da, oinarrizko soldata gehi indarra duten osagarriak, laguntza emateko ebazpena ematen den unean, gehi mugikortasunerako prima gehigarri bat, soldata gordin horren %20koa.

## **11. OINARRIA. ESKATZAILEEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK**

Deialdi honetan parte hartzeko, eskatzaileek ondoren zerrendatzen diren baldintza guztiak bete beharko dituzte **eskabidea aurkezteko garaian**:

11.1. 10.1 oinarrian aipatutako UPV/EHUko kolektiboetako batean egotea.

11.2. Egonaldia egiteko Irakasle eta Ikertzaileen Errektoreordetzak onartutako lizentzia izatea.

11.3. UPV/EHU ez den unibertsitate edo ikerketa-zentro publiko batean sartzeko eskatzea.

11.4. Unibertsitateko irakasle titularrek, irakasle agregatuek edo horien pareko figurek ezin izango dute hamar urte baino gehiagoko zerbitzu aldia izan.

11.5. Laguntza eskatzen den egonaldiaren iraupenak ez du inoiz gaindituko pertsona horrek UPV/EHUrekin laneko lotura indarrean duela daraman denbora.

## **12. OINARRIA. HAUTATUTAKO LANGILEEN BETEBEHARRAK**

12.1. Deialdi honen 14.2 oinarrian zehaztutako epean sartzea adierazten den Espainiako zein atzerriko unibertsitatean, atzerriko ikergunean edo Espainiako ikergune publikoan eta bertan egotea egonaldiak dirauen bitartean.

12.2. Sartzten den unibertsitateko edo ikerguneko arauen arabera jokatzeko, arduraldiari, bete beharreko funtzioari, ordutegiei eta unibertsitatearen edo helmugako zentroaren barne arauetara dagokienez.

12.3. Ikertzaile lana helmugako unibertsitatean edo ikergunean egitea. Ezin izango du UPV/EHU dozentzia birtualik egin.

12.4. Laguntza jasotzearekin zerikusia duten txosten, formulario eta gainerako agiriak bete beharko dituzte Ikerketaren Gestioko Zuzendaritzak (aurrerantzean IGZ) edo deialdia gestionatzen duten zerbitzuek hala eskatzen dietenean.

12.5. Beren jardueri buruzko informazio guztia eman beharko diete finantzak kontrolatu eta egiaztatzeko eskumena duten organoei, horiek hala eskatzen dietenean.

12.6. Deialdi honen babesean emandako laguntzari uko eginez gero, edo helburuak lortzea galarazten dieten jazoerak edo kalteak izanez gero, IPEari gutxienez 10 egun baliiodun lehenago jakinarazi beharko zaie. Deialdi honen indarraldian jasotzen diren beste laguntza edo ordainsarien berri eman beharko da.

12.7. Deialdi honen babesean formalizatutako egonaldiaren indarraldian egindako ikerketa-jardueren ondorioz sor daitezkeen lan, argitalpen eta bestelako emaitza guztiak sinatu egin beharko dira, eta UPV/EHUekin lanlotura dutela adierazi. Halaber, eskerrak emateko atalean, guztiek UPV/EHUren laguntza-deialdi hau aipatu beharko dute, Unibertsitate Ministerioak Europar Batasuneko Next Generation funtsekin finantzatua.

12.8. Deialdi honen babesean laguntza jasotzeak esan nahi interesdunak ezinbestean bete beharko dituela deialdiko arauak, bai eta Ikerketaren arloko Errektoreordetzak, dauzkan eskumenei jarraiki, lana ikuskatzeko eta ebaluatzeko ezarritako arauak errespetatzea ere. Halaber, Ikertzaileen Gutur Europarrean aurreikusitako betebeharrak orokorrak eta espezifikokoak ere bete beharko dira.

### 13. OINARRIA. ESKABIDEAK AURKEZTEA

13.1. Eskabideak kudeatzeko ardura duen unibertsitatea. Hautagaien eskabideak UPV/EHUa aurkeztu beharko dituzte, harekin baitute estatutu edo lan harremana.

13.2. Aurkezteko tokia eta era. Eskabideak UPV/EHUko Ikerketaren arloko errektoreordeari bidali beharko zaizkio. Eskabideak UPV/EHUko egoitza elektronikoko Erregistro Elektronikoa bidez aurkeztuko dira.

Erregistro Elektronikoa erabiltzen bada (<https://egoitza.ehu.eus/eu/registroelectronico>), «Helburua» atalean, lehenik, «Ikerketaren arloko Errektoreordetza» adierazi beharko da, eta, bigarrenik, «Ikerketaren kudeaketa. Deialdiak (U02000256)». «Eskatzen du» atalean, honako hau zehaztu beharko da: **«Unibertsitateko irakasle funtzionarioak edo kontratatuak birkualifikatzeko laguntzak».**

## 13.3. Behar den dokumentazioa:

- a. Eskabide inprimakia, betiere [IAEren webgunean](#) eskuragarri dagoen eredu normalizatuari jarraikiz. Harrerako ikertaldeko ikertzaile nagusiak eskuz edo ziurtagiri elektronikoaren bidez sinatuta aurkeztu beharko da.

Dokumentu hori eskabidearen osagai eta gutxieneko edukizat joko da eta, hortaz, behin aurkeztu eta gero eskatzaileak ezin izango du aldatu. Epearen barruan eta forma egokiz aurkezten ez bada baztertu egingo da.

- b. Eskatzailearen curriculum vitae laburtua, PDF formatuan. Dokumentu hau curriculum vitae laburtuaren (CVA) formatuan aurkeztuko da. Eskatzaileek online editatu ahal izango dute, honako lotura honen bidez: <https://cvn.fecyt.es/editor/>
- c. Hautagaiarengan eta haren jatorrizko unibertsitateko ikerketa taldean egonaldiak irakaskuntzan, ikerketan eta ezagutzaren transferentzian sortuko duen eragina justifikatzeko memoria.
- d. Unibertsitate edo ikerguna hartzailearen dokumentua, egonaldia onartzen duela adierazten duena.
- e. Talde hartzailearen historia zientifiko-teknikoa.
- f. Egonaldia egiteko Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetzak emandako baimena.
- g. Eskatzailearen sailaren adostasun dokumentua, egonaldirako laguntza eskabidea ezagutzen eta onartzen duela adierazten duena.
- h. Hizkuntzen jakite-maila egiaztatzen duten ziurtagiriak. Eskaerak aurkezteko epea bukatu ondoren lortutako ziurtagiririk ez da onartuko. Euskararen jakite-maila egiaztatzen duten ziurtagiriei dagokienez, kontuan hartuko dira 2010eko azaroaren 9ko 297 Dekretuan, euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien baliokidetzak. Apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuak, euskaraz egindako ikasketa ofizialak onartzekoak eta euskarazko hizkuntza-titulu eta -ziurtagirien bidezko egiaztapenetik salbuestekoak, ezartzen dituen baliozkotzeen kasuan, eskatzaileek ere dagokion ziurtagiria aurkeztu beharko dute. Estatuan ofizialak ez diren hizkuntzen ezagutza ziurtagiriei dagokienez, kontuan hartuko da Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko mailekin parekatzea.
- i. Ezgaitasuna duten pertsonentzat gordetako kupoaren bidez sartzen diren pertsonentzat, % 33ko ezgaitasun maila edo handiagoa egiaztatzen duen ziurtagiria.



13.4. Eskabideak aurkezteko epea. Eskabideak aurkezteko epea 2022-05-31n amaituko da.

Dokumentazioa EAEko edozein hizkuntza ofizialetan aurkez daiteke, euskaraz eta gaztelaniaz, baita ingelesez ere. Ebaluatzaileak euskaldunak ez badira, IAEa arduratuko da euskaraz aurkeztu diren eskaerak gaztelaniara edo ingelesera itzultzeaz. Itzulpena jasota, posta elektronikoz bidaliko zaio eskatzaileari, eskaeran adierazitako posta elektronikoaren bidez. Kontu horrek bost egun balioduneko epea izanen du hura berrikusi eta adostasuna emateko. Epe hori kontatzeko, kontuan hartuko da posta elektronikoaren kudeatzaileak posta elektronikoaren eman duela egiaztatzen duen agiria. Epe hori erantzunik jaso gabe bukatzen bada, ulertuko da eskatzailea ados dagoela.

**Atal honetan eskatzen den dokumentazioa baino ez da ebaluatuko; beraz, ez da beharrezkoa izanen eskatzaileek merezimenduak egiaztatzeko agiri gehiago aurkeztea.**

#### 14. OINARRIA. LAGUNTZA ESLEITZEA

14.1. Behin betiko erabakia jakinarazi eta hamar egun baliodunetara, hautatutakoek, laguntza lortzeko alegatu dituzten baldintza eta merezimenduen egiazkotasuna agertzeaz gain, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko diote IAeri:

- a. Deialdi honen esleipendun gisa dituzten betekizunen onarpen dokumentua.
- b. Sartze dokumentua, helmugako unibertsitateak edo ikerguneak baliozkotuta; bertan, aukeratutako pertsona sartu zen data zehatza agertuko da.

**Eskatutako agiriak epearen barruan eta forma egokiz aurkezten ez badira, laguntza jasotzeari uko egiten zaiola ulertuko da.**

14.2. Eskabidean adierazitako Espainiako unibertsitatean, atzerriko unibertsitatean edo ikergunean edo Espainiako ikergune publikoan lanean hasteko eguna egonaldiaren onarpen dokumentuan adierazitakoa izan beharko da, edo, horren ezean, laguntza emateko erabakiaren ondorengo 15 egun naturaletan. bertan adierazitakoa izango da.

Salbuespen gisa, helmugako zentroko egonaldiaren datak aldatzeko eskatu ahal izango zaio IGZri, hori beharrezko egiten duten arrazoi objektiboak behar bezala justifikatuta. Nolanahi ere, ezin izango da 90 egun natural baino gehiago atzeratu behin betiko ebazpena jakinarazi denetik hasita.

14.3. Eskabideak ebaluatzeko kontuan hartu diren baldintzetan edozein aldaketa egiteak laguntza atzera botatzea ekarriko du.



## **MARÍA ZAMBRANO LAGUNTZEN MODALITATEA, NAZIOARTEKO TALENTUA ERAKARTZEKO**

### **15. OINARRIA. XEDEA**

15.1. Laguntza hauen xedea hau da: atzerriko unibertsitateetan edo ikerguneetan doktorego ondoko ibilbide metatua duten irakasle eta ikertzaileak UPV/EHUra erakartzea.

### **16. OINARRIA. KONTRATUEN EZAUGARRIAK**

16.1. Modalitate honen bidez eman beharreko laguntza kopuru osoa aurrekontuak baimentzen duenaren arabera izango da. Halaber, erreserba zerrenda sortzea aurrikusten da eta ezin bada, soberakina beste modalitateera bideratzea.

16.2. Modalitate honi aplikaturiko finantzaketa osoaren % 2ari dagokion kontratu kopuru bat gordeko da honako pertsona hauentzat: gutxienez % 33ko desgaitasuna dutela egiaztatzen dutenak, betiere, zuzendari zientifikoaren txostenaren bidez egiaztatzen badute desgaitasun hori egonaldian zehar egin beharreko lanarekin bateragarria dela.

16.3. Laguntza bat gordeko da 5 ikerketa-eremuetarako (Zientziak, Ingeniaritza eta Arkitektura, Osasun Zientziak, Gizarte eta Zuzenbide Zientziak, Arteak eta Giza Zientziak), baldin eta ebaluazio-irizpideen arabera eskatzen den gutxieneko puntuazioa gainditzen duten ikerketa-eremu bakoitzeko eskaeren kopurua gutxieneko puntuazio hori gainditzen duten eskaeren guttizkoaren %10 bada gutxienez. Gainerako laguntzak ebaluazioan lortutako puntuazioaren arabera emanen dira, Ikerketa-eremua edozein dela ere.

16.4. Laguntza hauek Espainiako edo beste herrialde bateko nazionalitatea duten irakasle eta ikertzaileentzat dira, doktoratu ondoko ibilbide metatua gutxienez hogeita lau hilabetekoa badute Espainiako edo Espainiatik kanpoko unibertsitate edo ikerketa-zentroetan, doktore-tesiaren defentsa ez beste batzuetan.

16.5. Gainera, pertsona horiek ikerketa-proiektuak garatzen eta/edo unibertsitateetan, ikerketa-zentroetan edo Espainiatik kanpo dauden erakundeetan irakasten jardun beharko dute eskaera egiten den unean.

16.6. Hautagaiek modu jarraituan egin beharko dute laguntzaren xede den egonaldia UPV/EHUan.

16.7. Kontratua formalizatzen den unean indarrean dagoen legeriak arautuko du deialdi honen bidez lortzen den lan kontratua eta arduraldi osokoa izango da. Nolanahi ere, eginkizunei eta ordainsariei dagokienez, UPV/EHUko Irakasle eta Ikertzaileen Negoziazio Mahaiaren Akordioa aplikatuko da,

doktoretza aurreko kontratuaren eta zientzia, teknologia eta berrikuntzako Espainiako sisteman sartzeko kontratuaren modalitatean aldi baterako ikertzaileen araudia egokitzeari buruzkoa, UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak 2021eko abenduaren 16an onartua.

16.8. Sinatu beharreko kontratuaren iraupena 12 edo 24 hilabetetako izango da, eskabidean adierazitako egonaldiaren iraupenari jarraituta, formalizatzen den datatik kontatzen hasita. Iraupena ezin izango da 2024ko abenduaren 31 baino haratagokoa izan.

16.9. Onuradunak gehienez 60 orduko irakaskuntza lankidetzara eskaini ahal izango du urtean, berak eskatuta eta Ikerketaren arloko Errektoreordetzako IGZk aurrez onartuta.

16.10. Laguntzaren hileko zenbateko gordina apirilaren 20ko 289/2021 Errege Dekretuan ezarrita dago, eta 4.000 eurokoa izango da. Laguntzak doktoretza ondoko kontratu baten bidez emango dira. Zenbateko hori nomina gordinaren eta dagokion enpresa kuotaren batura da; beraz, kontratatutako pertsonak zenbateko horiek baino gutxiago jasoko du, enpresa kuota kenduko baitzaie.

16.11. Deialdi honen babesean formalizatutako kontratuak ez dakar kontratu harreman egonkorrik esleipendunaren eta UPV/EHUren artean; harreman hori kontratuaren indarraldia bukatzearekin batera amaituko da.

## **17. OINARRIA. ESKATZAILEEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK**

Deialdi honetan parte hartzeko, eskatzaileek ondoren zerrendatzen diren baldintza guztiak bete beharko dituzte **eskabidea aurkezteko unean**:

17.1. Gutxienez hogeita lau hilabeteko doktorego ondoko ibilbide metatua egiaztatzea, doktorego tesiaren defentsakoaz besteko Espainiako edo atzerriko unibertsitate edo ikerguneetan.

17.2. Eskaera egiten denean, Espainiatik kanpoko unibertsitate, ikerketa-zentro edo ikerketa-erakundeetan ikerketa-proiektuak garatzen eta/edo eskolak ematen aritzea.

17.3. Deialdi honetan erabilitako kontratu modalitatea Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko Legearen (ZTBL) 22. artikulua bidez egiten bada, eta onuraduna aurrez modalitate horretan kontratatuta egon bada, aurreko kontratuen iraupenaren eta deialdi honen bidez lortutako kontratuaren baturak ezin izango du gainditu ZTBLn ezarritako 5 urteko gehieneko epea.

Ezgaitasun egiaztatua duten pertsonen kasuan, 5 urteko muga 7 urtekoa izanen da.

## **18. OINARRIA. KONTRATATUTAKO LANGILEEN BETEBEHARRAK**

18.1. Eskabidean adierazten den zuzendari zientifikoari dagokion UPV/EHUko sail, institutu edo zentroan sartzea, eskabide honetako 21.4 oinarriko epean, eta bertan egon egonaldiak iraun bitartean.

18.2. UPV/EHUko arauen arabera jokatzeko, arduraldiari, bete beharreko funtzioari, ordutegiari eta unibertsitatearen edo helmugako zentroaren barne arauari dagokienez.

18.3. Ikerketa lana UPV/EHU egitea.

18.4. Laguntza jasotzearekin zerikusia duten txosten, formulario eta gainerako agiriak bete beharko dituzte Ikerketaren Gestioko Zuzendaritzak (aurrerantzean IGZ) edo deialdia gestionatzen duten zerbitzuek hala eskatzen dietenean.

18.5. Beren jardueri buruzko informazio guztia eman beharko diete finantzak kontrolatu eta egiaztatzeke eskumena duten organoei, horiek hala eskatzen dietenean.

18.6. IIPeri gutxienez 10 egun baliadun lehenago jakinaraztea deialdi honen babesean sinatutako kontratuari uko egiten diotela, edo deialdiaren helburuak lortzea galarazten dieten jazoerak edo kalteak izan dituztela. Deialdi honek iraun bitartean jasotako beste laguntza edo ordainsarien berri ematea, espresuki.

18.7. Deialdi honen babesean formalizatutako kontratua indarrean dagoen bitartean egindako ikerketa-jardueren ondorioz sor daitezkeen lan, argitalpen eta bestelako emaitza guztiak sinatu egin beharko dira, eta EHUrekin lanlotura dutela adierazi. Halaber, eskerrak emateko atalean, guztiek UPV/EHUren laguntza-deialdi hau aipatu beharko dute, Unibertsitate Ministerioak Europar Batasuneko Next Generation funtsekin finantzatua.

18.8. UPV/EHUren titulartasuna aitortzea, egindako ikerketa lanaren ondorioz sor litezkeen argitalpen, patente, modelo baliagarri eta jabetza intelektualeko objektuen nahiz lanen inguruan, aldi berean jabetza industrial edo intelektualaren asmatzaile gisa eskatzaileari egin beharreko aitortpenari eusten zaiolarik.

18.9. Deialdi honen babesean kontratua formalizatzeko deialdiko arauak errespetatzea dakar, bai eta Ikerketaren arloko Errektoreordetzak, dauzkan eskumenei jarraikita, lana ikuskatzeko eta ebaluatzeko ezarritako arauak errespetatzea ere. Ikertzailearen Gutun Europarrean aurreikusitako betebeharrak orokorrak eta espezifikoak bete beharko dira.

## **19. OINARRIA. ESKABIDEA BERMATZEN DUEN ZUZENDARI ZIENTIFIKOAREN BALDINTZAK**

19.1 UPV/EHUko talde hauetako batekoa izatea eskabidea aurkezten den unean:

- a. UPV/EHUri modu iraunkorrean lotutako lan-kontratudunak edo funtzionarioak, Ramón y Cajal programako UPV/EHUko kontratatutako langileak, UPV/EHUri atxikitako Ikerbasque programako langileak, UPV/EHUri atxikitako UPV/EHU-CSIC zentro mistoetako doktoreak.
- b. Lanaldi partzialean kontratatutako doktoreak, UPV/EHUri modu iraunkorrean lotuak.
- c. Salbuespen gisa, kontuan hartuko da zuzendari zientifikoak UPV/EHUrekin bestelako lotura izateko aukera aztertuko da, baldin eta doktoratu ondoko ibilbidea 5 urtetik gorakoa bada eta UPV/EHUrekin duen lotura laguntzaren iraupen osorako bada.

19.2. UPV/EHUrekiko lotura eskabidea aurkezten den unetik beretik eta laguntzak irauten duen bitartean izango da.

19.3. Gaur egun jardunean ari den ikerketa talde bateko kide izatea edo 2021eko taldeen deialdian Eusko Jaurlaritzari edo UPV/EHUri egindako eskaera batean parte hartu izana, edo, halakorik ezean, ikerketa proiektu aktibo bat izatea. Proiektu horrek, kasu batean edo bestean, laguntza eskatzen duen pertsona lantalde batean sartzea erraztuko du, eta laguntzak irauten duen bitartean sor daitezkeen beste ikerketa gastu batzuen estaldura ziurtatuko du.

19.4. Pertsona bat ezin izanen da agertu deialdiko modalitate honetako zuzendaritza zientifikoan, eskaera batean baino gehiagotan.

## **20. OINARRIA. ESKABIDEAK AURKEZTEA**

20.1. Eskabideen kudeaketa. Deialdi honen esparruan UPV/EHUko sartu nahi duten hautagaiek eskabideak UPV/EHUko aurkeztu beharko dituzte,

UPV/EHU izango da unibertsitate honetan sartu nahi dutenen eskabideak jasotzeko eta kudeatzeko arduraduna.

20.2. Aurkezteko tokia eta era. Eskabideak UPV/EHUko Ikerketaren arloko errektoreordeari zuzendu beharko zaizkio. Eskabideak UPV/EHUko egoitza elektronikoko Erregistro Elektronikoen bidez aurkeztuko dira, bai eta UPV/EHUko erregistro-gaietan laguntzeko bulegoetan edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 legearen 16.4 artikuluan jasotako prozeduretaren baten bitartez ere.

Erregistro                      Elektronikoa                      erabiltzen                      bada  
(<https://egoitza.ehu.eus/eu/registroelectronico>), «Helburua» atalean, lehenik,

«Ikerketaren arloko Errektoreordetza» adierazi beharko da, eta, bigarrenik, «Ikerketaren kudeaketa. Deialdiak (U02000256)». «Eskatzen du» atalean, honako hau zehaztu beharko da: **«María Zambrano laguntzak, nazioarteko talentua erakartzeko».**

Eskabideak eta dokumentazioa aurkezteko beste aukera bat helbide elektronikoa hau da, deialdiaren epearen barruan «Gaian» pertsonaren ABIZENA ETA IZENA idatziz: [mzambrano.dgi@ehu.eus](mailto:mzambrano.dgi@ehu.eus)

### 20.3. Behar den dokumentazioa:

- a. Eskabide inprimakia, honako webgune honetan eskuragarri dagoen eredu normalizatuari jarraituz. Harrerako ikertaldeko ikertzaile nagusiak eskuz edo ziurtagiri elektronikoen bidez sinatuta aurkeztu beharko da.

Dokumentu hori eskabidearen osagai eta gutxieneko edukizat joko da eta, hortaz, behin aurkeztu eta gero eskatzaileak ezin izango du aldatu. Epearen barruan eta forma egokiz aurkezten ez bada baztertu egingo da.

- b. Eskatzailearen curriculum vitae laburtua, PDF formatuan. Dokumentu hau curriculum vitae laburtuaren (CVA) formatuan aurkeztuko da. Eskatzaileek online editatu ahal izango dute, honako lotura honen bidez: <https://cvn.fecyt.es/editor/>
- c. Doktore titulua. Atzerrian lortutako tituluak badira, dagokion baliozkotzea edo, hala badagokio, dagokion Espainiako titulu ofizialerako homologazioa, titulazioarekiko baliokidetasuna edo ondorio profesionaletarako aintzatespena egiaztatzen duen agiria duela egiaztatu beharko da. Eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean titulazioa homologatuta edo onartuta ez badago, baldintza hori aldatu ahal izango da, baldin eta deialdia egin duen organoak titulazio hori deialdian eskatutakoaren baliokidetzat jotzen badu, homologaziorako, titulaziorako edo aintzatespenerako izapideak hasi dituela egiaztatzen badu. Agintaritzak eskudunak ezespene ebatzen badu, kontratua deuseztatu egingo da, eta, kasu jakin batzuetan, baldintza batzuk betetzen ez badira, ukatu egingo da. Kontratuan berariaz jasoko da kontratua suntsiarazteko baldintza bat.
- d. NAN, AIZ edo pasaportearen fotokopia, PDF formatuan.
- e. UPV/EHUko sail, institutu edo zentro hartzaileak egonaldia onartzen duelako dokumentua.
- f. Talde hartzailearen historia zientifiko-teknikoa.
- g. Memoria bat justifikatzen duena hautagaia egokia dela talde hartzailearen ikerketa eta ezagutzaren transferentziaren

beharretarako, bai eta espero den eragina ere. Halaber, hautagaiarengan Taldeak izango duen onura azaldu beharko da.

- h. Doktorego tesiaren defentsakoaz besteko Espainiako edo atzerriko unibertsitate edo ikerguneetan gutxienez hogeita lau hilabeteko doktorego ondoko ibilbide metatua egin izana egiaztatzen duen dokumentua edo dokumentuak.
- i. Eskabidea egiteko unean Espainiatik kanpoko unibertsitate edo zentroetan ikerketa proiektuak garatzen edota dozentzia ematen ari dela egiaztatzen duen dokumentua.
- j. Desgaitasunen bat duten pertsonentzat gordetako kupoaren bidez sartuko diren pertsonak ziurtagiria aurkeztu beharko dute, gutxienez % 33ko desgaitasuna egiaztatzen duena, bai eta zuzendari zientifikoaren txostena ere, egonaldian egin beharreko lanerako bateragarria dela egiaztatzen duena.
- k. Hizkuntzen jakite-maila egiaztatzen duten ziurtagiriak. Eskaerak aurkezteko epea bukatu ondoren lortutako ziurtagiririk ez da onartuko. Euskararen jakite-maila egiaztatzen duten ziurtagiriei dagokienez, kontuan hartuko dira 2010eko azaroaren 9ko 297 Dekretuan, euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien baliokidetzak. Apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuak, euskaraz egindako ikasketa ofizialak onartzekoak eta euskarazko hizkuntzatitulu eta -ziurtagirien bidezko egiaztapenetik salbuestekoak, ezartzen dituen baliozkotzeen kasuan, eskatzaileek ere dagokion ziurtagiria aurkeztu beharko dute. Gaztelania edo Estatuan ofizialak ez diren hizkuntzak jakitearen ziurtagiriei dagokienez, kontuan hartuko da Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko mailekin parekatzea.

20.4. **Eskabideak aurkezteko epea.** Eskabideak aurkezteko epea 2022-05-31n amaituko da.

Dokumentazioa EAeko edozein hizkuntza ofizialetan aurkez daiteke, euskaraz eta gaztelaniaz, baita ingelesez ere. Ebaluatzaileak euskaldunak ez badira, IAEa arduratuko da euskaraz aurkeztu diren eskaerak gaztelaniara edo ingelesera itzultzeaz. Itzulpena jasota, posta elektronikoz bidaliko zaio eskatzaileari, eskaeran adierazitako posta elektronikoaren bidez. Kontu horrek bost egun balioduneko epea izanen du hura berrikusi eta adostasuna emateko. Epe hori kontatzeko, kontuan hartuko da posta elektronikoaren kudeatzaileak posta elektronikoa eman duela egiaztatzen duen agiria. Epe hori erantzunik jaso gabe bukatzen bada, ulertuko da eskatzailea ados dagoela.



**20.3 oinarrian eskaturiko dokumentazioa besterik ez da ebaluatuko atal honetan. Beraz, ez da dokumentazio gehiagorik aurkeztu beharrik izango eskatzaileen merezimenduak egiaztatzeko.**

**21. OINARRIA. KONTRATUA ADJUDIKATZEA**

21.1. Behin betiko erabakia jakinarazi eta hamar lanegunera, kontrataziorako hautatutakoek, kontratua lortzeko alegatu dituzten baldintza eta merezimenduen egiazkotasuna agertzeaz gain, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dio IAeri:

- a. Deialdi honen esleipendun gisa dituzten betekizunen onarpen dokumentua.
- b. Identifikazio fitxa datu pertsonalak, bankukoak, eta Gizarte Segurantzako afiliazio zenbakia dituen.
- c. Doktore tituluaren fotokopia konpultsatua eta, atzerrian lortua izan balitz, tituluari dagokion homologazio agiria.
- d. Lanean hasteko agiria.
- e. Zentroan hasia atzeratzeko eskaera, horretarako arrazoi objektiboak behar bezala justifikatuta. Behin betiko ebazpena jakinarazi eta gehienez ere 90 egun natural atzeratu daiteke.
- f. Deialdi honetan erabilitako kontratu modalitatea ZTBLren 22. artikuluan bidez egiten bada, ZTBLren 22. artikuluan aurreikusitako kontratua formalizatzeko bateraezintasunik ez duela adierazten duen zinpeko aitortpena, deialdiaren modalitate horrekin formalizatuko den kontratuaren gehieneko iraupenari dagokionez.

21.2. Eskabideak hautatuta dituzten eta 21.1.d. oinarriaren arabera titulua homologatu behar duten hautagai atzerritarren kasuan, 21.1 oinarrian ezarritako 10 eguneko epeaz gain hilabete bat gehiago izango dute.

21.3. Europar Batasuneko herritarrak ez direnen kasuan, Espainian lan egiteko administrazio baimena aurkeztu beharko dute, ekintzaileei eta beren nazioartekotzeari laguntzeko irailaren 27ko 14/2013 Legeari jarraikiz.

21.4. Laguntzak emateko behin betiko ebazpenean ezarriko da kontratuak formalizatzeko data.

21.5. Kontratua formalizatu eta berehala hasi beharko du lanean eskaeran adierazitako helmugako UPV/EHU zentroan.

Salbuespen gisa, 21.1 oinarrian adierazitako agiriaren bidez atzerapena eskatu bada, atzerapen hori ez da 90 egun natural baino gehiagoa izango.

21.6. Eskaerak ebaluatzeko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira, alta izapidea eten egingo da eta, hala badagokio, kontratua deuseztatuko da.

21.7. Honako hauek dira kontratuari uko egiteko arrazoiak:

a. Beharrezko dokumentazioa ezarritako epean ez aurkeztea IGZn, biak 21.1 oinarriaren arabera.

b. Pertsona dagokion egunean lanean hasten ez bada helmugako zentroan, 21 oinarriaren arabera.5

## **HIRU MODALITATEEI APLIKATZEKO OINARRIAK**

### **22. OINARRIA. LAGUNTZAK JASOTZEN DITUZTEN PERTSONEK EGIN BEHARREKO JARDUERAK ERRESPETATU BEHAR DITUZTEN PRINTZIOAK**

22.1. Gizakiak, giza-lagin biologikoak eta/edo datu pertsonalak erabiltzen diren deialdi honen bidez garatu nahi diren jarduerak:

- Adierazpenetan ezarritako eta jasotako printzipio etikoak errespetatzea (Belmont 1979, CIOMS 2002, Genoma Humano UNESCO 1997, Oviedoko Hitzarmena 1999 eta Tokio 2004 Deklarazioa).
- Indarrean dagoen araudia betetzea: Ikerketa Biomedikoari buruzko 14/2007 Legea, Biobankuei buruzko 1716/2009 ED, Pazientearen Autonomiari buruzko 41/2002 Legea, eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa eta Europako Parlamentuaren 2016/679 Erregelamendua (EB). Baita Datu Pertsonalak Babesteko UPV/EHUren Araudia ere.
- Gizakiekin Ikertzeko Etika Batzordearen, haren datuen eta laginen (CEISH) alde aurreko eta nahitaezko aldeko txostenarekin batera aurkeztu behar da, UPV/EHU n ikerkuntzan eta irakaskuntzan etika-organoak arautzen dituen Erregelamenduan jasotzen den bezala, Gobernu Kontseiluaren 2014ko urtarrilaren 30eko Akordioan (EHAA, 32. zk., 2014/02/17).

22.2. Deialdi honetako 3 modalitateen bidez garatu nahi diren eta animaliekin esperimendatu behar diren jarduerak baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Nazioartean sustatutako ordezte-, murrizte- eta fintze-irizpideak errespetatzea.
- Animaliak ikertzeko arloan indarrean dagoen araudia betetzea (53/2013 ED).
- Animaliekin Esperimentatzeko Etika Batzordearen (CEEA) alde aurretiko eta nahitaezko aldeko txostenarekin batera aurkeztu behar da, UPV/EHU ikerketa eta irakaskuntzako etika-organoak arautzen dituen Erregelamenduan jasotzen den bezala, Gobernu Kontseiluaren 2014ko urtarrilaren 30eko Akordioan (EHAA, 32. zk., 2014/02/17).
- Agintari eskudunaren baimenarekin batera (foru-aldundietako abeltzaintza saila).

22.3. Genetikoki eraldatutako agente biologikoak eta/edo organismoak (GEO) erabiltzea eskatzen duten deialdi honen bidez garatu beharreko jarduerak:

- Prebentzio, arreta eta informazio printzipioak errespetatzea, giza osasuna eta ingurumena babesteari dagokionez.

- Arlo horretan indarrean dagoen araudia betetzea (31/1995 Legea, laneko arriskuen prebentzioa; 664/1997 Errege Dekretua, langileak agente biologikoen eraginpean egotearekin lotutako arriskuen aurka babesteko; 665/1997 Errege Dekretua, langileak agente kantzerigenoen eraginpean egotearekin lotutako arriskuen aurka babesteko; 9/2003 Legea eta 178/2004 Errege Dekretua, erabilera konfinatuari, borondatezko askatzeari eta GEO merkaturatzeari buruzkoa).
- Agente biologikoekin eta/edo GEOekin (CEIAB) Ikertzeko Etika Batzordearen alde aurreko eta nahitaezko aldeko txostenarekin batera aurkeztu behar da, UPV/EHU n ikerkuntzan eta irakaskuntzan etikaorganoak arautzen dituen Erregelamenduan jasota dagoen bezala (EHAA, 32. zk., 2014/02/17koa).

22.4. Deialdi honen bidez giza enbrioi-zelula enborrak edo haietatik eratorritako zelula-lerroak erabiltzea eskatzen duten jarduerak 45/2003 Legean eta 2132/2004 Errege Dekretuan xedatutakora egokitu beharko dira. Dekretu horren bidez, soberako aurreenbrioietatik lortutako enbor-zelulekin ikerketaproiektuak egiteko baldintzak eta prozedurak ezartzen dira, bai eta uztailaren 4ko 09/2014 Errege Dekretuan xedatutakora ere. Dekretu horren bidez, kalitatearauak, kalitate-banaketa eta segurtasun-arauak ezartzen dira, giza-zelula eta ehunen donazio, jasotze, ebaluazio, prozesamentu, mantentze, gordetze eta banaketarako.

Horrez gain, giza jatorriko lagin biologikoak behar bezala lortzeko eta erabiltzeko, kontuan hartu beharko da giza laginen bidezko ikerketari buruzko araudia, azaroaren 18ko 1716/2011 Errege Dekretuak ezarritakoa, biobankuak baimentzeko eta funtzionatzeko oinarriko baldintzak ezartzen dituen ikerketa biomedikorako eta giza jatorriko lagin biologikoak tratatzeko, eta Biobankuen Erregistro Nazionalaren funtzionamendua eta antolaketa arautzen dituen ikerketa biomedikorako. BOE zk.: 290, ostirala, 2011ko abenduaren 2a.

22.5. Deialdi honen bidez egiteko proposatutako jarduerak ezin izango dute gerren garapenean, sustapenean eta sustapenean lagundu, eta, zehazki, ez dute zuzenean edo zeharka lagunduko armak fabrikatzen eta/edo merkaturatzen dituzten enprekin.

## **23. OINARRIA. LEKUALDATZE GASTUETARAKO LAGUNTZA**

23.1. Hiru modalitateetan, onuradunek laguntza bat jasoko dute lekualdatze gastuetarako. Aldi bakarrean ordainduko da, egindako gastua justifikatu ondoren. Lekualdatze gastuetarako gehienezko zenbatekoa horrela zehaztuko da:

a. Margarita Salas eta Unibertsitate Irakasle Funtzionarioak edo Kontratatuak Birkualifikatzeko laguntzetan, kantitate maximoa egingo den egonaldiaren kokapenaren arabera izango da: - Espainia: 1.000 €

- Europako gainerako herrialdeak: 1.500 €

- Munduko gainerako herrialdeak: 3.500 €

b. Maria Zambrano laguntzetan kantitate maximoa jatorrizko herrialdearen arabera izango da: - Europa: 1.500 €

- Munduko gainerako herrialdeak: 3.500 €

Laguntzaren xedea honako lekualdatze hauetan sortutako gastuak finantzatzea da:

a. Eskabidean adierazitako estatuko edo atzerriko unibertsitate edo ikergunera joatea eta han egonaldia hastea.

b. Lekualdatzea eta UPV/EHUra itzulera, eta egonaldiaren hasiera, unibertsitateko irakasle funtzionarioak edo kontratatuak birkualifikatzeko laguntzen modalitateko laguntzen kasuan.

i. Egonaldi etenen kasuan, lekualdatze gastua aukera daiteke (joana eta etorria) horietako bakoitzean.

ii. Nolanahi ere, laguntza bakarra izango da, aurreko atalean adierazitako egonaldi etenetako bakoitzaren joan-etorrien gastuak sartzeko aukerari kalterik egin gabe.

iii. Laguntzaren muga orokorra 23.1.a oinarrian ezarritako mugei lotuko zaie beti.

c. Gaixotasun eta istripu aseguruaren kontratazioa

23.2. Atzerrian egiten diren egonaldien kasuan, laguntzaren onuradunak "IBILIBEREZI" izeneko bidaiari-, osasun- eta istripu-aseguru bat kontratatu beharko du. Aseguru horren estaldurak, baldintzak eta kontratazio-baldintzak esteka honetan ikus daitezke: <https://www.ehu.es/es/web/kontratazioa/ibiliberezi>.

Aseguru hori Ondare Zerbitzuarekin harremanetan jarrita kontratatu beharko da, [ondarea.aseguruak@ehu.eus](mailto:ondarea.aseguruak@ehu.eus) posta elektronikoaren bidez.

Aseguruaren kostua onuradunak hartuko du bere gain eta, ondoren, lekualdatze gastuetarako laguntzarekin egindako gastuaren frogagiriei erantsiko die.

23.3. Unibertsitateak edo ikerketa-zentroak erantzukizun zibileko aseguru bat aurkeztea eskatzen badu, Ondare Zerbitzuari eskatu beharko zaio, lehen aipatutako [ondarea.aseguruak@ehu.eus](mailto:ondarea.aseguruak@ehu.eus) posta elektronikoaren bidez, dagokion ziurtagiria emateko.

23.3. Laguntza bidaia-poltsa gisa ordainduko da, sortutako gastuen ordain gisa, IAEaren IGZan gastua justifikatzen duten agiriak aurkeztu berehala.

## **24. OINARRIA. ESKABIDEAK EBALUATZEKO PROZEDURA**

24.1. Hautaketa-prozesuan sexuen arteko aukera-berdintasunaren printzipioa betetzeaz arduratuko da ebaluazio-batzordea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezarritakoarekin bat etorriz, eta emakumeen eta gizonen arteko ordezkariak orekatua sustatuko du.

Honako hauek osatuko dute ebaluazio-batzordea: Ikerketako errektoreordeak, lehendakari gisa jardungo duenak; Irakasle eta Ikertzaileen errektoreordeak, idazkari gisa jardungo duenak; eta UPV/EHUtik kanpoko bost kidek, ezagutza handi bakoitzeko batek (Zientziak, Ingeniaritza eta Arkitektura, Osasun Zientziak, Gizarte Zientziak eta Arte Juridikoak eta Giza Zientziak).

24.2. Hautapen prozesua fase bakarrean egingen da, eta fase horretan lehentasun-ordena emanen zaie hautagaiei, aurkeztutako eskaerak ebaluatu eta justifikazio txostena egin ondoren.

24.3 Aurkeztutako eskaerak ezagutza-arlo bakoitzean UPV/EHUtik kanpoko ospe handiko ikertzaileek (gutxienez bi Ikerketa-tarte onartuta dutenek) ebaluatuko dituzte. Horrez gain, ebaluatzaileetako batek prozesuaren koordinatzaile gisa jardun ahal izango du, eta lortutako puntuazioen arabera eskaeren zerrenda lehenetsia eman beharko dio ebaluazio batzordeari. Ebaluatzaile guztiek adierazi beharko dute ez dagoela interes-gatazkarik esleitzen zaizkien eskaerekin.

24.4. Hiru modalitateen ebaluazio-irizpideak apirilaren 20ko 289/2021 Errege Dekretuak definitu ditu, eta hiru hauek finkatu ditu:

- Hautagaiaren CVA, 50 puntu gehienez.
- Talde hartzailearen historial zientifiko-teknikoa, 30 puntu gehienez.
- Justifikazio-memoriak, 20 puntu gehienez.

Deialdi honen I. eranskinean zehazten dira ebaluazio prozesuan aplikatzeko irizpideak.

24.5. I. eranskinean aipatzen diren merezimenduen ebaluazioak 2016-deialdia itxi arte mugatuko dira beti.

24.6. Eskaera bat deialdiko hiru modalitateetako edozeinetan hautatu ahal izateko, egindako ebaluazioan 80 puntu edo gehiago lortu beharko ditu, I. eranskinean zehazten diren irizpideen arabera.

24.7. Zenbait eskatzailearen artean azken puntuazioan berdinketarik izanez gero, eskabideak ondoko irizpideen arabera antolatuko dira, bata bestearen atzetik aplikatuta, berdinketa hautsi arte:

- a. Zuzendaritza zientifikoan diharduen pertsona 6.1 oinarriko a kategoriakoa den eskaera nagusituko da. (Margarita Salas) eta 19.1 (Maria Zambrano).
- b. Abalatzen duen taldeak laguntza gutxiago jaso dituen eskaera lehenetsiko da.
- c. Atzerriko zentro edo unibertsitate batean egonaldia egiteko eskaerak izanen du lehentasuna.
- d. Izangaiaren CVA irizpidean puntuaziorik altuena duen eskaera lehenetsiko da.
- e. Talde hartzailearen historia zientifiko-teknikoaren irizpidean puntuaziorik onena lortu duen eskaera nagusituko da.
- f. Memoria justifikatzailean puntuaziorik onena lortu duen eskaera lehenetsiko da.

## 25. OINARRIA. ESKABIDEEN TRAMITAZIOA

25.1. Ebaluaziorako onartutako eta baztertutako eskabideen behin-behineko zerrenda argitaratzea. Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, IGZk aurkeztutako eskabideak aztertuko ditu. Azterketa hau amaitu eta gero, IAEk bere webgunean emango du argitara onartu diren eta bazterrean utzi diren eskabideen zerrenda, ebaluazio fasera iraganen direnak.

25.2. Zuzentzea. Eskabideak aurkezteko epean zehar emandako dokumentazioa osoa ez bada edo zuzen litezkeen erroreak baditu, IAEk eskatuko dio eskatzaileari hamar eguneko epean osa eta zuzen dezan.

Eskatzaileak ezin izango du ez hobetu ez ordezkatu lehenago aurkeztutako dokumentazioa eta eskabideak ezin izango dira inola ere berriro egin. IAEk eskatu ez duen dokumentaziorik ere ezin izango da aurkeztu.

Zuzenketak aurkezteko, modalitate bakoitzeko "Eskabideak aurkeztea" oinarrietan azaldutako baliabide berak erabili beharko dira (7., 13. eta 20. oinarriak).

25.3. Ebaluaziorako onartu eta baztertutako eskabideen behin betiko zerrenda argitaratzea. Aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta gero, onartutako eskabideen eta baztertutako behin betiko zerrenda argitaratuko da. Bertan behera utzitzat hartuko dira epez eta formaz zuzendu edo osatu ez diren eskabideak.

25.4. Ebaluazio fasea. 24.4. oinarrian deskribatutako ebaluazio irizpideen balorazioak gutxienez 2 hilabete iraungo du eta 24. oinarrian ezarritako prozedura aplikatuta egingo da.

25.5. Behin-behineko ebazpena. Ebaluazio Batzordeak laguntzak esleitzeko proposamena igorriko dio Ikerketako errektoreordeari, behin-behineko ebazpena eman dezan. Proposamen hori IAEaren web orrian argitaratuko da, eskatzaile guztiek lortutako behin-behineko puntuazioa adierazita.

Eskatzaileek beren eskabidearen ebaluazio txostena posta elektronikoz eska dezakete, helbide honetara:

- Margarita Salas modalitateko eskaerak: [msalas.dgi@ehu.es](mailto:msalas.dgi@ehu.es) edo [igz.msalase@ehu.es](mailto:igz.msalase@ehu.es)
- "Unibertsitateko irakasle funtzionario edo kontratatuak birkualifikatzeko laguntzak: [movilidad.dgi@ehu.es](mailto:movilidad.dgi@ehu.es) edo [igz.mugikortasuna@ehu.es](mailto:igz.mugikortasuna@ehu.es)
- María Zambrano modalitateko eskaerak: [mzambrano.dgi@ehu.es](mailto:mzambrano.dgi@ehu.es) edo [igz.mzambranoe@ehu.es](mailto:igz.mzambranoe@ehu.es)

Interesdunek 10 egun baliioduneko epea izanen dute, gehienez, bidezkotzat jotzen dituzten alegazioak aurkezteko. Epe horretan berariazko alegaziorik jasotzen ez bada, proposamena onartutzat joko da eta alegatzeko eskubidea galduko du.

25.6. Behin betiko erabakia. Alegazioetarako epea bukatutakoan, IAEk aurkeztutako alegazioak aurkeztuko dizkio Ebaluazio Batzordeari, bertan aztertu eta, ondorioz, laguntzak esleitzeko behin betiko ebazpen-proposamena egin diezaion Ikerketako errektoreordeari.

Laguntzak eman edo ukatzeko behin betiko ebazpena IAEren web orrian argitaratuko da, erreserbako zerrendan dauden pertsonak barne, eta publikazioa interesatuei jakinarazpen gisa hartuko da.

25.7. Behin betiko erabakiaren aurkako errekurtsioak. Behin betiko erabakiak administrazio bidea agortzen du, eta honako bide hauek daude horren kontra egiteko (inola ere ez aldi berean erabilia):

- a. Lehenengo eta behin, aukerako berraztertze errekurtsioa aurkez dakioke erabakia eman duen organoari berari hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita.

Administrazio errekurtsio hori jarriz gero, eta errekurtsioa jarri eta hilabeteko epean erabaki adierazirik jaso ezean, errekurtsioa administrazio isiltasuna medio ezetsi dela ulertu beharko da. Horrela gertatuz gero, hurrengo atalean adierazitako auzibidera jotzeko aukera egongo da.

Kasu horretan, administrazioarekiko auzi errekurtsioa jartzeko epea 6 hilabetekoa izango da, aukerako berraztertze errekurtsioa ezetsitzat joa



izan den egunaren biharamunetik kontatzen hasita (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legea, eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikulua).

- b. Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke Bilboko administrazio auzietako epaitegietan. Horretarako, 2 hilabeteko epea dago, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8.3 eta 46. artikulua).

## **26. OINARRIA. BATERAEZINTASUNEN ERREGIMENA**

Deialdi honen babesean formalizatutako kontratua ez da bateragarria izango beste batekin, honako hauekin izan ezik: Bateriaezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legearen 9. artikuluan aipatzen diren jarduerak.

## **27. OINARRIA. UKO EGITEAK, BAJAK ETA KONTRATUAREN AMAIERA**

27.1 Irakasle eta Ikertzaileen Errektoreordetzari jakinarazi beharko zaio, gutxienez 10 lanegun lehenago, deialdi honen babesean sinatutako kontratuari uko egiten diola, bai eta deialdiaren helburuak lortzea eragozten edo kaltetzen duen edozein gorabehera ere. Deialdi honen indarraldian jaso diren beste laguntza edo ordainsari batzuen berri emango da berariaz.

Onartu ala ez, baja horrek ez du esan nahi onuraduna laguntzatik salbuesten denik hartutako laguntza aldiaren etekina behar bezala justifikatzen, dagokion memoriarekin.

27.2. Jakinarazpen hau egin beharko da:

- a. "Margarita Salas laguntzak doktore gazteak prestatzeko" eta "María Zambrano laguntzak nazioarteko talentua erakartzeko" modalitateetan, zuzendari zientifikoak edo kontratatutako ikertzaileek berek.
- b. "Unibertsitateko irakasle funtzionario edo kontratatuak birkalifikatzeko laguntzak" modalitatean, laguntzaren onuradunak.

## **28. OINARRIA. JARRAIPENA**

Deialdi honekin bat etorrita kontratatutako pertsonalak egindako lanaren jarraipen zientifiko eta tekniko IGZri dagokio, horretarako jarraitu beharreko prozedurak ezarriko dituelarik. Hortaz, egoki leritzekeen organoak, batzordeak eta pertsonal aditua izendatu ahal izango ditu eta egoki leritzokeen informazio osagarria eskatu, kontratua behar bezala burutu den

egiaztatzeko beharko liratekeen jarraipen eta egiaztatze egitateak buru ditzaten.

### **AZKEN XEDAPENETAKO LEHENA**

Deialdi honek administrazio bidea amaitzen du, eta beronen kontra administrazioarekiko auzi errekurtoa jar daiteke Bilboko administrazio auzietako epaitegietan, bi hilabeteko epean, deialdia argitaratzen den egunetik kontatzen hasita. Hala izanik ere, aukerako berraztertze errekurtoa jarri ahal izango da erabakia argitaratu eta hilabeteko epean Ikerketaren arloko errektoreordearen aurrean, 39/2015 legearen 123. Artikuluari jarraikiz.

### **AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA**

Deialdi hau Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean argitaratzean sartuko da indarrean.

Leioan, 2022ko maiatzaren 03an.

Inmaculada Arostegui Madariaga  
Ikerketaren Arloko Errektoreordea  
Vicerrectora de Investigación

**I. ERANSKINA: ESKABIDEAK EBALUATZEKO IRIZPIDEAK****«Margarita Salas» modalitatean aplikagarriak diren irizpideak.****a.- Hautagaiaren CVA, gehienez 50 puntu**

Produkzio zientifikoa	25 punturarte.
Bere arloan erreferentzia indizea duten publikazioak (CNEIA kriterioaren arabera)	
Kongresu zientifikoetan parte-hartzea	
Ikerketa proiektu eta kontratu lehiakorretan partehartzea	15 punturarte.
Doktorego tesia aurkeztu deneko Unibertsitatea ez den beste Ikerketa centro eta unibertsitateetan egonaldiak	10 punturarte.
Estatuan ofizialak ez diren hizkuntzak	10 punturarte.
Hizkuntza bakoitzagatik merituak horrela baloratuko dira: <ul style="list-style-type: none"> <li>• C2 maila eta baliokideak: 5 puntu. •</li> <li>C1 maila eta baliokideak: 4 puntu. •</li> <li>B2 maila eta baliokideak: 3 puntu.</li> </ul> Maila baxuagoko agiririk ez da kontuan hartuko. Estatuan ofizialak ez diren hizkuntzengatik kontuan hartuko den maximoa 10 puntu izango dira.	
Euskera	5 punturarte.
Euskera horrela baloratuko da: <ul style="list-style-type: none"> <li>• C2 maila eta baliokideak: 5 puntu. •</li> <li>C1 maila eta baliokideak: 4 puntu. •</li> <li>B2 maila eta baliokideak: 3 puntu.</li> </ul> Maila baxuagoko agiririk ez da kontuan hartuko.	

**Oharra:** puntu guztien baturak 65 ematen badu ere, atal honetan lor daitekeen puntuazio maximoa 50ekoa izango da

**b.- Talde hartzailearen historia zientifiko-teknikoa, gehienez 30 puntu.**

Ikerketa zientifikoaren kalitatea: publikazioak eta ponentziak (CNEAI kriterioen arabera)	15 punturarte
Ikertzaileak prestatzeko gaitasuna: tesi eta kontratu pre-eta posdoktoralen zuzendaritza	10 punturarte

Finantzaketa eta jakintzaren transferentzia: proiektu lehiako eta enpresekin kontratuen kopuru eta finantzazioa. Transferentzia akzioena ere bai	5 punturarte
--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	--------------

**c.- Justifikazio memoriak, gehienez 20 puntu.**

Egonaldiaren justifikazio egokia, bai eta eskatzaileak ikertzaile eta irakasle jardueran lortuko duen onura ere.	10 punturarte
Egonaldiaren onurek eskatzailea itzuliko den zentroko ikerketa eta irakaskuntza jardueran eta zuzendari zientifikoan eragin positiboa izango dutela egiaztatzen duen justifikazio egokia.	5 punturarte
Proposatzen den mugikortasunaren internazionalizazio maila	5 punturarte

**«Unibertsitateko irakasle funtzionarioak edo kontratatuak birkualifikatzeko» modalitatean aplikagarriak diren irizpideak.**

**a.- Hautagaiaren CVA, gehienez 50 puntu**

Produkzio zientifikoa	25 punturarte
Bere arloan erreferentzia indizea duten publikazioak (CNEIA kriterioaren arabera)	
Kongresu zientifikoetan parte-hartzea	
Ikerketa proiektu eta kontratu lehiakorretan partehartzea	15 punturarte.
Ezagutza-transferentziarako akzioak	10 punturarte.
Doktorego-tesien zuzendaritza	10 punturarte.
Euskera eta Estatuan ofizialak ez diren hizkuntzak	5 punturarte.
Hizkuntza bakoitzagatik merituak horrela baloratuko dira: <ul style="list-style-type: none"> <li>• C2 maila eta baliokideak: 5 puntu.</li> <li>• C1 maila eta baliokideak: 4 puntu. • B2 maila eta baliokideak: 3 puntu.</li> </ul> Maila baxuagoko agiririk ez da kontuan hartuko.	

**b.- Talde hartzailearen historia zientifiko-teknikoa 2016-deialdia itxi arte: gehienez 30 puntu.**

Ikerketa zientifikoaren kalitatea: publikazioak eta ponentziak (CNEAI kriterioen arabera)	15 punturarte
-------------------------------------------------------------------------------------------	---------------

Ikertzaileak prestatzeko gaitasuna: tesi eta kontratu pre-eta posdoktoralen zuzendaritza	10 punturarte
Finantzaketa eta jakintzaren transferentzia: proiektu lehiako eta enpresekin kontratuen kopuru eta finantzazioa. Transferentzia akzioena ere bai	5 punturarte

### c.- Justifikazio memoriak, gehienez 20 puntu.

Egonaldiaren justifikazio egokia, bai eta eskatzaileak ikertzaile eta irakasle jardueran lortuko duen onura ere.	10 punturarte
Egonaldiaren onurek eskatzailea itzuliko den zentroko ikerketa eta irakaskuntza jardueran eta zuzendari zientifikoan eragin positiboa izango dutela egiaztatzen duen justifikazio egokia.	5 punturarte
Proposatzen den mugikortasunaren internazionalizazio maila	5 punturarte

## «María Zambrano» modalitatean aplikagarriak diren irizpideak.

### a.- Hautagaiaren CVA, gehienez 50 puntu

Produktzio zientifikoa	25 punturarte.
Bere arloan erreferentzia indizea duten publikazioak (CNEIA kriterioaren arabera)	
Kongresu zientifikoetan parte-hartzea	
Ikerketa proiektu eta kontratu lehiakorretan parte-hartzea	10 punturarte.
Ezagutza-transferentziarako akzioak	5 punturarte.
Doktorego-tesien zuzendaritza	10 punturarte.
Doktorego tesia aurkeztu deneko Unibertsitatea ez den beste Ikerketa centro eta unibertsitateetan egonaldiak	5 punturarte.
Estatuan ofizialak ez diren hizkuntzak	5 punturarte.
Hizkuntza bakoitzagatik meritua horrela baloratuko dira: <ul style="list-style-type: none"> <li>• C2 maila eta baliokideak: 5 puntu.</li> <li>• C1 maila eta baliokideak: 4 puntu. • B2 maila eta baliokideak: 3 puntu.</li> </ul> Maila baxuagoko agiririk ez da kontuan hartuko. Estatuan ofizialak ez diren hizkuntzengatik kontuan hartuko den maximoa 5 puntu izango dira.	
Autonomia-erkidegoaren ofiziala den hizkuntza	5 punturarte.

<p>Euskera horrela baloratuko da:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• C2 maila eta baliokideak: 5 puntu.</li> <li>• C1 maila eta baliokideak: 4 puntu. • B2 maila eta baliokideak: 3 puntu.</li> </ul> <p>Maila baxuagoko agiririk ez da kontuan hartuko.</p> <p>Autonomia Erkidegoan hizkuntza ofizialetako bat bera ere ez duten eskatzaileen kasuan, euskararako ezarritako baremoen arabera puntuatuko da gaztelania.</p>	
----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	--

**b.- Talde hartzailearen historia zientifiko-teknikoa, gehienez 30 puntu.**

Ikerketa zientifikoaren kalitatea: publikazioak eta ponentziak (CNEAI kriterioen arabera)	15 punturarte
Ikertzaileak prestatzeko gaitasuna: tesi eta kontratu pre-eta posdoktoralen zuzendaritza	10 punturarte
Finantzaketa eta jakintzaren transferentzia: proiektu lehiako eta enpresekin kontratuen kopuru eta finantzazioa. Transferentzia akzioena ere bai	5 punturarte

**c.- Justifikazio memoriak, gehienez 20 puntu.**

Egonaldiaren justifikazio egokia, bai eta eskatzaileak ikertzaile eta irakasle jardueran lortuko duen onura ere.	10 punturarte
Egonaldiaren onurek eskatzailea itzuliko den zentroko ikerketa eta irakaskuntza jardueran eta zuzendari zientifikoan eragin positiboa izango dutela egiaztatzen duen justifikazio egokia.	10 punturarte